

UDAN BAI >> HABANAKO HITZALAK (IV)**IÑIGO ARANBARRI**

Habana Zaharrean Ernest Hemingway zinbelada oraindik ere, deikiduzu, daikiria edateko aitzakia kulturala behar baduzu, Floriditatik; mojitoa baduzu La Bodeguita del Mediotik; eta liziba bada, Ambos Mundos hoteleko 511ko gelatik. Arrazoi komertzialak medio, idazten baino edaten segitzen baitu hona hurbiltzen den turista askorentzat, eta zinez zaila izango zaizu horietatik pasa gabe itzultzea. Idazlearen itzala Obispo kalekoa baino luzeagoa da, ordea, beharrik.

Almejeiras ospitalearen atzean, Lucena, Concordia, Virtudes eta Marques Gonzalez kaleen artean, bada oraindik eraikin ikusgarri bat, egun Ponce Carrasco kirolegia deitzen dena eta barruan sartu orduko inoiz ikusitako frontoirik ikusgarriena bihurtzen dena. Mazzantini anaiek bultzatuta, Osoro, Sarasketa, Uribarri, Nazabal, Mendez eta Lezama zirela enpresa, 1901ean zabaldu zen Jai Alai hau, Leonard Wood estatubatuar gobernadoreak baimen guztiak eman ondoren. Berehala, hara bildutako pilotarietako batzuek izen handia lortu zuten Habanako gizartean. Luis Gardoy *Makala*-k, esaterako. Kapeluak eramateko era bat bilakatu zen Makalarena, eta zapatak *a lo Macala* janzen ziren, edo lastozko kanotierak, edo gorbatak, edo edozer, hain zen galaila euskalduna.

30eko hamarkadan, hemen eza-gutu zituen Hemingwayk bere lagunak, Edorta Jimenezek eta Alberto Barandiaranek erakutsi dizkiguten horiek, Bigarren Mundu gerran Karibeko uretan urpekuntzi alemanen bila, *Gaizkileen Faktoria* osatu zutenak: Juan Duñabeitia kapitaina, Andres Untzain Mundakako abadea, eta pilotariak, Paco Garai, Felix Areitio eta Ibarluzea anaia, Patxi eta Julian.

Egun, egoten zen giroagatik *Oihuen Jauregia* deitu izan zen hartatik, haien oihartzun ahul bat baino ez da gelditzen, entzun nahi duenarentzat. Egurrezko aulkiak, zeuden tokian daude, zenbakia zuriz jarria okume ilunean. Pilotariak eta ikusleak banatzen zituen sarea, hortxe dago, baita markagailua ere, auskalo zein partidatan mututua. Kantxan, Tarzan markinarra horman gora igotzerako pilotak botea jotzen zuen parean, ping-pong mahaia dago. Lau gazte ari dira gaur. Atzean, errebotetik gertu, ring nekatu bat, aulkiak bezain hutsik. Irteeran, ezin taberna abandonatuan sartu gabe gelditu. Erdi ilunpetan, baldosa zurizko hormetan, Patxi Ibarluzearen itzala ikustea iruditut zait.

Jaso nahi ditut itzalok. Argazki makina atera orduko, zaindaria hurreratu zait. Ezin da. Arrazoi dekadentziaren estetikan dago. Boineak eta Nazioarteko Pilota Federazioak frontoia zaharberri-



La Terraza ostaltua Cojimarren. IÑIGO ARANBARRI

Gaizkileen **orpoak**

Gaizkileen Faktoria deitzen ziren, eta zinez, euskaldunak inoiz Hollywoodeko film batean bizi izan bagara, orduan izan delakoan nago: urpekuntzi aleman ehizan Karibe erdian!



Ernest Hemingway eta Juan Duñabeitia.

tzeko erabakia duten dirua iritsi bitartean, Gobernua nekatua dago Habana hautsi, txikitu, hondatuaren estetika liluragarri horrekin, eta duintasunagatik, ez dizu salaketa politikorako dokumentu erantsi gisa erabil daitekeen irudia eramaten utziko.

Ondoko kaleetan, Belascoainen-eta, aurki daiteke oraindik pilotarien eta haien lagun biltoki izan ziren ostaluen arrastorik. Malekoirantz, zabalik da Mar y Tierra, edo Marques Gonzalezen Toki Ona, iraultzara arte Martin Inazio Odriozola, *Txakurtxo* edo *Euskal meteoroa* deitzen zuten pilotari gazte harena izan zena.

Hasita, La Vigía-ra joan beharra dago, Ernest zahararen etxea zarratuta dagoela jakinarazi didaten arren. Ezagutzen ez ditudan auzoetatik narama Ceciliak, ezagun bat agurtzera Altahabanara, errekadu bat egitera Viejalindara. Gazte aldra bat, boxeoan ari diren biri begira. Hala, San Vicente de